



Euskaraldia, biribilean dantzan performancea

Abenduak 3, 19:00etan, plazan

Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta antolatutako ekitaldien artean, aurten bada berrikuntza nagusi bat, Oñatiko Euskaraldiko Batzordeak antolatutako *Euskaraldia, biribilean dantzan performancea*.

Sinbolismoz betetako 15 minutuko ekitaldi labur bat izango da. “Euskararen sua” irudikatuz kriseilu bat piztuko dugu plazan, eta haren inguruan batuko gara herritarrak, biribilean, eskutik helduta.

Udaletxeko arkupetan egingo den kantu saioaren amaieran izango da, zazpiak aldera. Plazan egongo den kriseilua pizten denean hasiko da performancea. Momentu horretan, Udaletxeko arkupetan kantuan ibilitakoak “su” piztu berriari segika, plazara ateratzen hasiko dira *–Euskara jalgi hadi plazara!–*.

Arkupetik plazara irtengo gara, eskutik helduta, eta suaren inguruan biribilak osatuko ditugu, *Guk euskaraz* abestia kantatzen dugun bitartean.

Lehenengo biribil txiki bat egingo dugu; gero beste bat handixeagoa, eta gero beste bat handiagoa... Ahalik eta biribil gehien osatuko ditugu: ***gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan*** egin nahi dugulako.

Abestia amaitu eta irrintzi bat bota ondoren, bakoitza bere lekuan geldirik dagoela, bi esatarik Euskaraldiaren mezua irakurriko dute. Jarraian, denok “su” berriak piztuko ditugu (kandela txikiak, linternak, telefonoak...). Performanceari amaiera emateko, plazan piztutako “su” txiki berri guztiekin argazkia egingo dugu Udaletxeko balkoitik.

Ekintza sinboliko honen bidez, ahobiziaz eta belarriprestak plazara ateratzeaz gain, Euskaraldiaren mezua zabaldu eta zirrara kolektibo txiki bat sortaraztea da Euskaraldia antolatzeko lantaldearen asmoa.

Jakingo duzue, Euskaraldiaren 2. edizioan talde baten babesean parte hartzeko aukera ere izango dugu, eta dagoeneko hasiak gara 2020an egingo dugun Euskaraldirako prestatzen. Horregatik, herriko elkarte eta entitateekin batera, ahobizi eta belarriprest guztiei gonbitea egiten dizuegu plazara irten eta performancean parte hartzera etortzeko.

Oñatiko Euskaraldiko Herri Batzordea

onati@euskaraldia.eus

EUSKARALDIA, Biribilean dantzan performancea

EGUNA: Abenduak 3, asteartea.

LEKUA: Foruen enparantza

ORDUA: 18:50ak aldera (Euskararen Eguneko kantu saioaren ostean)